

Irakurketa aditua (Lecture experte) KADIRA URDINA

Zer jiten zaizu gogora testu hori irakurtzean?

Irrigarria da. Testuan umorea bada.

Gauza bera egin dezakegu!

Kadira urdin bat basamortuan!!

Zer ari dira otso bat eta xakur bat basamortuan?

Bi adiskideen arteko fantasia/konplizitatea dromedarioaren zorrotasunarekin eta irudimen eskasarekin kontrastean da.

Zer da dromedarioaren rola? Moztura bat sortzen du. Konformista da. Helduaren rola du?

Denbora

Testuan	“Egun hartan”, “bat-batean”.
Irudian	Egun eguzkitsua da (zerua urdina da).
Ipuina noiznahi iragan daiteke - kronologiarik “ez”, bukaeran salbu	

Espazioa

Testuan	“Basamortuan”, “hortik ez urrun”, “basamortuan”.
Irudian	Basamortuak: kasik orrialdearen espazio guzia okupatzen du. Beti ber espazioan iragaten da, mugagabeko espazio batean.
Ipuina basamortuko edozein tokitan gerta daiteke	

	Pertsonaien deskribapena	Pertsonaien sentimenduak	Ekintzak
Testuan	Koskerdi: “beti zehaztasun gosez” (bi aldiz). Dromedarioa: “zorrozki begira zegoen”.	Koskerdi: “atsegin ditut kadirak”, “joko hartaz gustaturik”. Dromedarioa: “bat-batean oihu egin zuen”.	ibilki ziren erran zuen marmaratu zuen iragarri zuen seinalatuz hurbildu aurkitu zuten erran zuen osatu zuen baliatu zuen adierazi zuen bota zuen

			gehitu zuen begira zegoen jarraitu zuen onartu zuen hurbildu oihu egin zuen kokatu zen erran zion
Irudietan	Zakarnika (otsoa) Koskerdi (xakurra) bi adiskide kamelidoa gamelua dromedarioa holako abere bat	Adiskide dira Galduak basamortuan, deus egiteko Kontent dira zerbait atzematea eta kadira batekin gauzak asmatzea Nahibagetuak dira gamelua entzutean Gamelua harritua da bi adiskide horiek ikusi eta. Seriosa da.	2 adiskideak: ibiltzen ziren, kadira bat aurkitu zuten eta milaka joko asmatu zituzten. Baina gameluak jokoa gelditu zuen eta 2 adiskideak joan ziren.
Ororen buru	Kontraste franko bada: animalien itxuran; egoeraren eta tokiaren artean; gameluaren eta bi pertsonaia horien artean. Deskribapen zehatzik ez da testuan, irudiekin itxuratzen ditugu animaliak: 2 lagun horiek arras desberdinak dira, bat ttipia da, horia; bestea handia, argala, beltza. “Beti zehaztasun gosez”: testuan 2 aldiz agertzen da; hitz horiekin Koskerdiren nortasuna agertzen da. Testuak irudiek erakusten dutena osatzen du: plazer handia hartzen dute jokoan. Irriak, oihuak, balentriak... Elkarrizketak irudia osatzen du, eta esplikatzen kadira zer bilakatzen den. Xakurra eta otsoa biziki aktiboak dira, toki aspergarri batean; jokoak asmatzen dituzte. Lagun batekin garen artean, guti behar da irudimena pizteko eta memento goxoak pasatzeko, edozein tokitan izanik ere (toki aspergarri batean ere). Gameluak edo dromedarioak joko hori bat-batean hausten du, eta geldialdiak (kadiran jartzerakoan) lekua hartzen dio jokoaren mugimenduari, seriosotasunak alaitasunari, helduen konformismoak haurren irudimenari eta askatasunari.		